



Elgoibartik Iruñeko txupinazora

BARRENeko harpidedunentzako **oharra**

Buzoiko **B** pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARREN**en bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH SMS25AI05E ONTZI-GARBIGAILUA

A
T
G
E

449 €



- 12 zerbitzu
- ActiveWater teknologia
- EcoSilence motorra
- Programazio gerorotua, 24 ordura arte.
- VarioSpeed sistema
- Hatz marken kontrako altzairu herdoilgaitza

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

SANBARTOLOMEETAKO NERABEEN EGUNEKO

BAZKARIA

DBH1-DBH4 BITARTEKO NERABEENTZAT

ABUZTUAK 30

- ☀ Parte hartzea doakoa da. Bazkaria etxetik ekarri beharko duzu, eta edaria, postrea eta kamiseta guk emango dizkizugu.
- ☀ Abuztuaren 24an Nerabeen Eguneko kamisetak banatuko dira. *Kamiseta izateko izen emate galdetegia bete beharko duzu.*
- ☀ Abuztuaren 30ean 13:00etan elkartuko gara elizako atarian eta ardurak banatuko dira.
- ☀ 15:30ean KITZIKIren kontzertua izango da Kalegoen Plazan.

**KITZI
KI**

txutxiamaika
KIDU BARRUTIAK FORTAZATZEA



IZENA EMATEKO: www.elgoibarkoizarra.eus / elgoibar.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Maialen Sanchez

Idazlea

Denek alde egiten dutenean



***“Denbora asko inbertitzen
dugu hurbilekoen
ongizatea zaintzen,
eta horrek geure buruaz
ahaztea ekartzen digu”***

Gai honi buruz hitz egitea batzuentzat nahiko konplikatua da. Zaintzen duen pertsonak senti dezakeen bakardadea ez da oso ezaguna, eta lerro hauen bidez ikusgarri egin nahi nuke, eta bide batez, nolabait eskerrak eman bizitza beste batzuei eskaintzen dieten pertsona guztiei.

Bizitzaren zati handi bat gure familia zaintzen ematen dugu, gure seme-alabak edo gure gurasoak zaintzen. Hala egiten dugu, eta ez dakit kulturagatik den edo horrek ongi sentiarazten gaituelako. Arrazoi edozein dela ere, denbora eta pazientzia asko inbertitzen dugu hurbilekoen ongizatea zaintzen, eta horrek geure buruaz ahaztea eragiten digu. Batzuetan, derrigorrezkotzat hartzen dugun joera horrek gainditu egin gaitzake, eta burutik pasatzen zaigu korrika hasi eta dena atzean uztea. Batzuk ez dira ausartzen ihes egitera; beste batzuk, egoerak gaindituta, kilometroak egiteko gai dira errealitate gogor horretatik ihes egiteko, eta ez naiz ni izango besteak epaitzen hasiko dena.

Ezer ez da betiko. Bizitzak etapa batzuk ditu, eta etorri bezain laster ireki eta itxi behar ditugu. Egoera horiei ezinbestean aurre egin behar diegu. Seme-alabak hazi egiten dira eta beren bizitza egiten dute, eta gure zaintzapean egon dena joan egiten da, gehiago ez itzultzeko; orduan, dena da isiltasuna.

Bakardade horretan, arduraldi eta zaintza garai horren aurretik gure bizitza nolakoa zen gogoratzea tokatzen da; soberan dagoela irudi dezakeen denbora hori betetzea tokatzen da. Hasiera berri honetan, norberak lokartuta zegoen bere bizitzako alderdiak berriro topatzeko egin behar du lan. Denak joaten direnean, bere ondoan dagoenaz ere ohartzen da. Bizitzak eskaintzen digun bide luzean ondo lagunduta egoteak momentu onetan eta txarretan norekin konta dezakegun jakiteko ziurtasuna emango digu. Bizitza ia aurreikusi ezin den gidoi baten gainean garatzen da; bizitzak merezi behar du. Gure esku dago protagonista edo bigarren mailako aktorea izatea.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Esneari ezti goilarakada bat botatzen diogunean...

Aste honetan *Barren.eus*-en bidez jakin dugu Juan Mugertza kaleko garaje batean erlekume bat agertu dela. Itxura denez ez da lehen kasua izan. Haritz Arrieta herrikideak emandako azalpenekin jakin dugu zer egin behar den horrelako egoera baten aurrean. Merezi du entzutea. Testuinguru honetan erleen garrantziaz jabetu naiz. Honatx zertzelada batzuk:

Adituen esanetan, 100 milioi urte daramatzate erleek munduan eta 20.000 erle espezie baino gehiago existitzen dira. Estibaliz Urresola zinemagileari esker ere jakin dugu hori (20.000 *especies de abejas*). Ezti erle batek 29 km/h abiaduran egin dezake hegan, beti ere kargarik eta haizerik gabe joanez gero eta segunduro 200 aldiz mugitzen ditu bere hegala. Datu hau ere ikaragarria da: 1.500 eta 3.000 arrautza jar ditzake erreginak egun bakar batean, bi arrautza minutu bakoitzeko eta beraz, urtean 200.000 arrautza jartzeko gai da. Kilo bat ezti egiteko bi milioi lore bisitatu eta 80.000 km hegan egin behar dituzte eta, 7 eta 12 kilo ezti jan behar dituzte erleek argizari kilo

bat egiteko. 35 polen kilo egin ditzake erlauntza batek urte osoan zehar. To!

Greenpeaceen hitzetan, erleen polinizazio lanaren balio ekonomikoa 265.000 milioi euro da urtean munduan; Europan 22.000 milioi euro urtean. Polinizatzaile ornogabeen %40 erleak dira bereziki eta hauek aspalditik desagertzeko arriskuan daudela esana digute.

Esneari ezti goilarakada bat botatzen diogunean gogoratu gaitezen zenbat esfortzu, saiakera eta talde-lan dagoen erleen familian.

Z.A.

Oharra

Uztailaren 19an ez dugu BARREN astekaririk kaleratuko, sanbartolomeetako ale berezia prestatzen ariko gara eta. Uztailaren 30ean banatuko dugu opor aurreko azken zenbakia, eta beraz, ale horretan zerbait argitaratu nahi izanez gero (merkatu txikia eta zorionak atalak ez dira egongo), uztailaren 24rako bidali behar da informazioa BARREneko erredakziora.

BARREN



Badatoz San Bartolome jaiak!

**ZURE ENPRESA, NEGOTIO EDO DENDAREN IZENEAN
JAIETAN BEZEROAK ZORIONDU NAHI BADITUZU, JARRI GUREKIN HARREMANETAN.**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

 **943 743 704**  **688 769 657**





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

 943 744 112  688 655 658



Atesarea zabalik utzi dute:

"Basueta baserriaren goiko aldean dagoen atesarea zabalik laga zuten oinezko batzuek, horrek daukan arriskuarekin. Udalekuetako ume batzuk ere pasatu ziren handik, eta larrean zeuden animaliak xaxatzen ibili ziren. Errespetua eskatu nahi dugu".



Txalo bat Mendaroko Gararock taldeari:

"Zorionak, Gararock; zorionak antolatzaileei, iragartzeko kartelean Txirristaka bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurrenari keinua egitearren ere, zorionak. Ezin politagoak kamisetak eta poltsak. Petti eta Etxeko Uztak taldeak Mendaroko San Agustin kultur gunean eman zuen kontzertuan aurkeztu zuten Gararock jaialdiaren kartela, eta nik, ordutik, *The one I love* entzuteari ezin utzi: youtu.be/VogK_KJVIJw?si=0R3ijjQFHCpTc5_w".



Eskerrik asko Udalari, Mintxetako igerileku handirako sarbidea errazteagatik:

"Mugimendu murritzua dutenentzako arrapala eskatu nuen Udalean eta nire eskaria aintzat hartu dute. Eskerrak eman nahi dizkiet udal arduradunei, Mintxetako igerileku handira sartzeko eskailera erosoagoak jarri dituztelako".



Aire libreko zine emanaldien ordutegia ezin al da aurreratu 21:30era umeen filmak direnean?:

Kultura Sailera bideratu dugu galdera, eta esan digutenez 22:30ean ematen dituzte filmak, irudiak ondo proiektatzeko iluntasuna ezinbestekoa delako, eta garai honetan 21:30ean oraindik ez delako guztiz ilun egoten.

Asteburuan izango du segida Mendaroko Garagardo Azoka Solidarioak

A tzo zabaldu zuten Mendaroko Garagardo Azoka solidarioaren hirugarren edizioa, eta aurten batzen duten dirua Dislegi Debabarrena elkartearentzat izango da. 2022an sortu zuten Debabarreneneko Dislexia elkarte, dislexia duten pertsonen eta haien senideei laguntzeko. Hain justu ere, dislexiari buruzko hitzaldi batekin hasi zuten atzo azoka, eta asteburuan zehar ere presente izango da dislexia azokan. Bihar dislexiari buruzko informazio mahaia jarriko dituzte 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta nahi duenak eskura izango du bai dislexiari eta baita elkarteari buruzko informazioa ere. 🗣️ Aitor Zabala



Odol ateratzeak gaur, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur arratsaldean Elgoibarko Jubilatuen Biltokian, 16:00etatik aurrera. Antolatzaileek eskatu

dute txanda aurrez hartzeko: 623 328 408 zenbakira whatsapp bidalita edo gotatanta.eus webgunearen bidez hartu daiteke.

San Fermin Txiki Eguna ospatu dute Mendaron



Mendaroko udalekuetan San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten martitzenean. Entzierroa egin zuten Iruñean egiten duten antzera, eta etxeko txikiak zezenen aurrean ibili ziren

korrika. Kamiseta txuria eta zapi gorria lepoan jantzita joan ziren umeak, eta Iruñearen itxura hartu zuen Mendarok. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus

Danobatgroupek 600.000 euro bideratuko ditu 'Elkarrekin Eragin' programara

Danobatgroupek 2018tik laguntzen du *Elkarrekin Eragin* programa, eta hurugarren edizio honetan 600.000 euro emango ditu hainbat elkarteri laguntzeko. Zehazki Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkarteak (AECC), Elhuyarrek eta Gautena Gipuzkoako Autismo Elkarteak proposatutako eraldaketa sozialeko proiektuak babesteko emango du dirulaguntza, hiru urterako. Hautatutako lehen proiektua AECCk sustatutakoa da, eta Gipuzkoan egoitza berria ezartzea du helburu, zehazki Arrasaten. Ekimen hori gauzatzeko 200.000 euro bideratuko ditu Danobatgroupek, eta psikologia, gizarte-lan eta prebentzioko funtsezko zerbitzuak eskainiko dizkie bai minbiziak kaltetutako pazienteei, baita senideei ere. Bigarren proiektua Elhuyarrek bultzatutakoa da, eta Danobatgroupek 175.000 euroekin babestuko du. Nerabeen buruko osasunaren narriadura aztertzea du helburu



nagusi. Ikastetxe, guraso eta elkarteekin estuki lan eginez, psikologo espezializatuek diseinatutako irtenbideak inplementatuko dira, prozesuaren erdigunean gazteen ahotsa eta ikuspuntua jarrita.

Azkenik, Gautenak autismoa dutenei eta haien senideei hasitako proiektua lagundu du Danobatgroupek 2021 eta 2023 urteen artean eta bide beretik jarraituko du. 150.000 euro eman dizkio elkarteari, Udalak doan lagatako Santa Klara komentua zentro dinamiko bihurtzeko.

Hilaren 16rako irteera antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak irteera antolatu du hilaren 16rako. Areetatik Sopelara joango dira, Punta Galeatik pasatuta. 14 kilometroko ibilaldia izango da. 08:00etako trena hartuko dute Elgoibarren, Bilboraino, eta gero, metroz joango dira Areetara. Hamarretakoa eta bazkaria norberak eramane beharko ditu etxetik, eta gero, denek batera bazkalduko dute Sopelan. Itzulera bakoitzak nahi duenean egin dezake. Informazio gehiagorako Jubilatuen Biltokiko bulegora jo daiteke.

136.600 euro landa bideak berritzeko

Elgoibarko Udalak herriko hainbat landa-bide asfaltatzeko lanak kontratatatzeko lizitazio-prozesua jarri du abian. 136.689,67 euro (BEZa barne) emango ditu, eta kontratua sinatu ostean, hilabeteko epea aurreikusten da obra gauzatzeko. Eskaerak egiteko epea abuztuaren 1ean amaituko da. Informazio gehiagorako elgoibar.eus webgunean.

Praktikak atzerrian egiteko beken berri eman dute

Unibertsitate titulua duten gazteei atzerrian praktikak egiteko aukera emango diete Basque Trade & Investment-ek (Euskal Nazioartekotze Agentzia), ASPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak eta Eusko Jaurlaritzak. Onuradunak 1.635 euro jasoko ditu hilean. Izena emateko baldintzak 30 urte baino gutxiago izatea eta unibertsitateko titulua eta ingeleseko B2 maila izatea dira. Profil akademikoari dagokionez, hainbat alorretarako eskaintzak daude: komunikazioa, zientzia politikoak, psikologia, gizarte-zientziak, nazioarteko harremanak, arkitektura, ingeniariak, irakasletza... Eta herrialdeak ere, hainbat daude aukeran: Costa Rica, Belgika, Portugal, Mexiko, Argentina, Suitza, Guatemala, India, Frantzia, Txile, Italia...

Izena emateko epea uztailaren 19an amaituko da. Interesa duten pertsonek honako esteka hau bisita dezakete eskaintza guztiak eta beren helmuga-herrialdeak ezagutzeko: garapen.net/becas-global-training-2024/index-eu.php

Zaraten aurkako ekintza planari alegazioak egin dizkio Mendaroko Udalak



2022an, Mendaroko Udalak herriko zarataren mapa sortzeko azterlan bat egiteko eskatu zion Laexor Ingenieritza Akustikoari. Helburua Mendarotik pasatzen den AP-8 errepidean ibilgailuen trafikoak sortzen duen zarata aztertzea zen. Arno Bide kalean eta Azpilgoeta auzoko landa-gunean ingurumen-zarataren monitoretza-estazioak kokatu ziren, eta modelizazio akustikoaren bidez, hurbileko etxebizitza eraikinetan eragiten zuen inpaktua aztertu zen. Ikerketak autobidearen bi aldeetan hesi akustikoak eraikitzea proposatzen zuen.

Mendaroko Udalak, 2022ko uztailaren 18an, modelizazio akustikoko txostena helarazi zion Foru Aldundiari txosteneko edukia eta ondorioak kontuan hartuak izan zitezen, baina Aldundiak alegazioa atzera bota zuen, esanaz zarataren mapa estrategikoen xedea ez zela eremu zehatzetan hartu beharreko soluzioak definitzea, hori zarataren aurkako ekintza planean landuko zela.

2024ko ekainaren 10ean, publiko egin zen Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideetako zarataren aurkako ekintza planaren 4. fasea. Oraingo honetan jendaurrean jartzen den dokumentua zarataren aurkako ekintza plana denez, alegazio gisa, Mendaroko Udalak Laecor Ingeniaritza Akustikoak eginiko modelizazio akustikoko txostena birbidali dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, duela bi urte egindako azterlaneko emaitzak kontuan har ditzan.

Sokamuturra udal eraikinetako balkoietatik ikusteko aukera izango dute herritarrek



Elgoibarko Udalak udal eraikinetako balkoiak zabalduko dizkie herritarrei sanbartolomeetan, sokamuturra ikusteko. Uztailaren 16ra arte eman daiteke izena, eta uztailaren 18an egingo dute zozketa. Lagun bakoitzak egun bakar batean izango du lekua balkoietan. Horregatik, interesdunek zehaztu egin beharko dute izena emateko unean zein egunetan ikusi nahi duten sokamuturra. Zozketaren irabazleak beste pertsona batekin joan ahal izango dira. Guztira 34 lagunentzako lekua egongo da: 13 lagun (26 plaza) hautatuko dituzte sokamuturra udaletxetik ikusteko eta beste lau pertsona (8 plaza) Kultur Etxerako. Abuztuaren 25ean, 26an eta 30ean egingo da sokamuturra.

471.900 euro bideratuko dituzte kiroldegiko teilatua konpontzeko

Olaizaga kiroldegiko igerileku zaharraren gaineko teilatua berritzeko lanak hasi ditu Udalak, eta guztira 471.000 euro bideratuko ditu (BEZ barne) obra hori egiteko. Lau hilabeteko iraupena izango du obrak eta epe horretan eraikin zaharreko bi igerilekuak itxita egongo dira. Hala ere, aldagela guztiak herritarrek erabiltzeko moduan egongo dira. Igeriketa ikastaroak igerileku berrira lekualdatuko dituzte, 0-5 urte bitartekoentzako ikastaroak izan ezik; horiek eten egingo dira aldi baterako.

Estalki berriarekin, ura sartzea saihesteaz gain, igerilekuaren handitze-bolumenarekin integrazio estetikoak lortu nahi dute, bai eta mantenurako erraztasun handiagoa ere.

ELGOIBARKO DULTZAINEROAK SANFERMINETAN

Elgoibarko dultzaineroak Iruñeko sanferminetako txupinazoan izan dira aurten ere. Txomin Mujikak zabaldu zuen bidea duela 40 bat urte, eta probatu dutenek ez dute lagatzeko. Han bizi izan dutena deskribaezina zaie, baina dozenaka argazki bidali dizkigute, hitzez azaldu ezin daitekeena irudiz erakusteko. Argazki gehiago: barren.eus

✍️ Ainara Argoitia
📷 Elgoibarko dultzaineroak

Etorri onenekoak ere ezin dezake azaldu Iruñeko sanferminetako txupinazoan plaza bete lagunen aurrera dultzaina jotzera irtetea zer den. Ezta Txomin Mujikak berak ere, hogeita hamar urtez baino gehiagoan bizi izan duen arren momentu hori barru-barrutik. Txupinazo aurreko eta ondorengo momentuak nola diren azaltzen ari dela ere oilo-larrua jartzen zaiola dio, telefonoz bestaldetik: "Sinistezina da. Rio de Janeiroko Karnabala-eta aipatzen dituzte, baina konparaziorik ere ez dago. Sanferminen pareko jairik ez dago". Aurten ere han izan da Mujika, Elgoibarko dultzainero gazteagoak lagun hartuta.

1975. urtean ezagutu zituen estreinakoz Iruñeko sanferminak Mujikak eta 49 urtean urtero-urtero izan da han. Victor Zubiaurre zena eta biak joan ziren estreinakoz, "Seat seiscientos zahar baten", itsu-itsuan, eta sekula Iruñea zapaldu gabeak izateko izugarritzko zortea izan zutela esan beharko dugu, Gaztelu plazan bertan aparkatu zutelako, Iruña kafetegi aurrean. "Gaur egun kontatzen dugu eta jendeak sinistu ere ez du egiten, baina neu nintzen txoferra eta inork baino hobeto dakit non aparkatu genuen. Pentsa



Aitor Nova eta Gorka Mujika.

ezazu gaur egun zer den hori. Orain, anbulantzia bati ere ez diote lagatzen han aparkatzen".

Iruñeko Gaiteroekin txupinazoan jotzeko ohitura geroagokoa du, hala ere: "Orain 40 bat urtekoa kalkulatzeko dut". Javier Lacunza eta Jose Luis Fraile Iruñeko gaiteroen taldeko beteranoek,



Atzean, Txomin Mujika, Iker Odria, Aitor Nova eta Andoni Riaño. Aurrean, Mikel Etxaniz, Beñat Konde eta Asier Rodriguez.

"lagun handiek", zabaldu zioten harako bidea, baina lehenengo hiru bat urtean txistua jotzera joan ziren Zubiaurre eta biak. "Ez ginen ausartzen dultzainarekin joaten, gaiteroen unibertsitatea zer hura eta!". Nolanahi ere, orduko eta gaurko jaia konparaezinak direla dio. "Ez zegoen orduan gaurko masifikaziorik; ezta urrik eman ere, baina bazetorren hori ere sortzen". Mujikak kontatu du sanferminak ezagutu zituenean La Pamplonesa udal musika bandakoak izaten zirela plazara jotzera irteten zirenak, baina laga ziotela, plazan zegoenetako norbaitek kristalezko botila bat jaurti eta bandakide bat zauritu zuenean. "Gaur beste jendetzarik ez zen izaten, baina beti izaten da majaderoren bat eta orduan ere bazen", azpimarratu du. Egoera hartan, Iruñeko gaiteroak agertu ziren erreleboa emateko prest. "Hamarren bat izango ziren hasieran, eta orain, berrehun bat batzen gara txupinazoan".

Eta Mujikaren eskutik iritsi dira Elgoibarko eta Mendaroko dultzainero gazteagoak Iruñeko txupinazora. Beñat Konde da maisuak alebintzat dituenetako bat. 2010ean bizi izan zuen estreinakoz momentu hura Kondek, Aitor Novarekin batera, eta geroztik, ez du hutsik egin, ezta

"Covidaren pandemiagatik txupinazorik izan ez zen bi urtean ere eutsi zioten tradizioari Konde eta konpainiak"

bikotekidearekin batera urtebeterako munduari itzulia ematera joan zenean ere. "Uztailaren 18an irten ginen Elgoibartik eta urtebetera, uztailaren 5ean, itzuli ginen Loiura. Handik zuzenean Iruñera joan, han lo egin, eta biharamunean txupinazora batu nintzen". Are, COVIDaren pandemiagatik txupinazorik izan ez zen bi urtean ere eutsi zioten tradizioari Konde eta konpainiak, Elgoibarren, eta hemen ibili ziren, dultzainero jantzita, kalez kale, txupinazoan jo ohi dituzten *Iruñeko sarrera* eta *Ánimo pues* piezak joaz. Uztailaren 6ko egunez dultzaineroek Iruñeko La Mañueta frontoian egin ohi duten herri-bazkari giroa ere ekarri zuten, Elgoibarko elkarte batean formato txikiagoan egin zuten otordura [Aurten 160 dultzainero batu dira La Mañuetako bazkarian]. Baina Kondek ere ez du hitzik bildu Iruñean asteen sentitu dutena deskribatzeko.

Duela bi-hiru urtera arte, txupinazoko unea udaletxe barruan bizi izaten zuten dultzaineroek, baina azkenekoetan udaletxe ostean izan dituzte, harik eta txupineroek txapligoa bota eta La Pamplonesa udal musika bandakoek txistulariekin batera *Gainza* biribilketa jo arte. Hori eta gero, txistulariak plazara irten ohi dira *Agur jaunak* jotzera, udaltzainek nola-hala zabaldutako bidean aurrera, eta haiek udaletxera erretiratzen direnean irteten dira gaiteroak kalera, udaletxea barrutik zeharkatuta, 12:15ak aldera. Momentu horren zirrara bertan egon ez denak imaginatu ere ezin dezakeela egin dio Kondek, irudiak telebistaz ikusi dituenak igarri dezakeela uste arren. "Izugarria da, hunkigarria. Geu ere egonda gaude jendeari bizkarra emanda, udaltzainei nola-hala laguntzen, dultzaina jotzen gaudela". Txomin Mujika, Aitor Nova eta Beñat Konde dultzaineroez gain, Mikel Etxaniz (danborra), Gorka Mujika (danborra), Iker Odria (danborra), Asier Rodriguez (danborra) eta Andoni Riaño (dultzaina) ere parte hartu dute Iruñeko txupinazoan, gaiteroekin. 2011n joan zen estreinakoz Mikel Etxaniz, eta azkeneko hiru bat urtean batu zaizkie gainerakoak beterranoagoei, baina behin probatu duenak ez dauka momentu hori lagatzeko. "Aldatz behera hasita gaude gu, baina bateriak funtzionatzen digun bitartean han izango naiz sanferminetan. Nik gozatu dudan beste gozatzen badute hauek, ez dira gaizki ibiliko", esan du Mujikak, eskarmentuaren ahotsak. Txupinazotik aparte, sanferminetako egitarauko beste hainbat ekintzatan ere parte hartu dute Elgoibarko dultzaineroek eta irailean ospatuko duten San Fermin Txikiak jaira ere batuko dira batzuk, urte guzti hauetan Iruñean egin dituzten lagunak eskutik. Izan ere, lagun asko eta beste horrenbeste momentu gogoangarri eman dizkiete sanferminek. Zaila zaie urte bat edo momentu bat apartatzea ere, baina Arrantzale bizardunek Iruñeko udaletxeko fatxadan ikurriña zabaldu zuten urteko txupinazoa ekarri du gogora Kondek. 2013an izan zen. Mundu oso bat udaletxeko plazara begira zegoela, plaza teilatu batetik bestera zeharkatzen zuen kable batean ikurriña eskegi zuten Arrantzale bizardunek, eta ikurriak txupinazoa botatzea galarazten ez zuen arren, hura kendu arteko onik ez zuten izan orduko agintariek jaiak hasteko. "Han geunden gu".

"Txiki Eguna edo sanferminak. Hortxe izaten dut nik dilema. Txiki Eguna geurea da, baina sanferminak oso bereziak dira; urtero harritzen

"Txupinazotik aparte, sanferminetako egitarauko beste hainbat ekintzatan ere parte hartu dute Elgoibarko dultzaineroek eta irailean ospatuko duten San Fermin Txikiak jaira ere batuko dira batzuk"

naute. Kalean sortzen den giro hori deskriba ezina da. Aurten, Zuberoako batzuekin elkartu gara kalean, eta ordu t'erdiz ibili gara kantuan, eztarriak urratu arte. Dena da inprobisatua han, dena kalean. Jakin egin behar da non ibili ere pixkat, jendetzatik ihes eginda, baina izugarria da. Egon egin behar da, sanferminak zer diren ulertzeko", bota du Kondek. Domekan izango dute aurtengoak azkena, ez beraz, denbora gehiago galdu.



Gaiteroak udaletxetik irteteko unean.

■ Astebeteko jaiak Mendaron



Uztailaren 24an Joxe Eizagirre brigadako langileak botako duen etxafuegoak hasiko ditu ofizialki Santa Ana jaiak Mendaron, baina gaur zortzi hasiko dute herriko gazteek jai-egitaraua. Zazpi eguneko jaiak izango dira aurten, eta indarra beharko da azkeneraino iristeko. Horregatik laga dute, beharbada, azkenerako Umeen Eguna, akiezinak diruditelako. Izan ere, betea dator egitaraua, erromeria eta kale banden usainekoa bereziki. Dena ezin hona ekarri, baina, eta jaietan protagonismo

berezia hartuko duten herritarrak bildu ditugu orrialde hauetan, izango direlako aurten santanetan oholztan debuta egingo duten mendarorarrak, bai eta jaiak apartekoak izan daitezen beren onena emango duten norbanako eta eragileak ere. Santanetara etorri eta betirako geldituko denik ere izango da aurten, konpartsa taldekoek aurreratu dutelako bi buruhandi berri aterako dituztela jaietan kalera, San Joan bezpera egunez aurkeztu zuten Mari erraldoiarekin eta gainerakoekin batera.

✍️ Ainara Argoitia

Gazte Asanbladakoek hartu dute jaietako lehenengo eguna antolatzeko ardura, jai batzordekoen babesean, eta osatu dute haien neurrirako egitaraua, Udalaren laguntzarekin. Antolatu dira gazteak egitaraua osatzeko eta jaiak kolorea emateko [Kuadrilla Egunerako kamiseten ardura hartu dute aurten ere], eta antolatu dira, baita ere, santanak -eta gainerako jai guztiak- askeak eta seguruak izan daitezen guztiontzat. Eguaztenean bilerara deitu zuen, adibidez, Itaia Emakumeon Antolakunde Sozialistak jai-giroko indarkeria matxistari kontra egiteko. Udalak ere, bere aldetik, eraso sexistarik gabeko jai parekideen alde egin du eta jaiak askatasunez eta elkarrenganako errespetuz gozatzera deitu ditu herritarrak.

Maiatzaren hondarrean hasi zuten frontenis txapelketako finalek emango diote hasiera gaur

zortziko Gazte Egunari. Emakumezkoen finala Irati Mendikute eta Josune Mantecaren eta Ane Landa eta Miren Gisasola eibartarraren kontrakoa izango dela jakina da dagoeneko, baina gizonezkoen finalerdiak uztailaren 18an dituzte jokatzekoak, eta beraz, ia azken egunera arte mantenduko da emozio hori. Final-laurdenetarako sailkatutako lau bikoteen artean, Mendaro bertako bi daude: Axular Agirregabiria eta Ander Aberasturi batetik, eta Unax Salegi eta Ander Garate bestetik. 10:00etan jokatu dira bi finalak, uztailaren 20an, eta eguerdiko tabernaz tabernako jiraren ostean, elkarrekin bazkalduko dute gazteek gero frontoian. Mendaron aski ezaguna den Elektrotxufla txarangak, Añube rock taldeak eta Tatta&Denso raplariek girotuko dute arratsalde, iluntze eta gau parteak, eta egunari azkena Txola ta Potxola herriko DJ gazteek emango diote.



TXOLA TA POTXOLA DJEN ESTREINAKOA

Ane Landa eta Naroa Zubia dira Txola ta Potxola (Mendaro, 2003), baina ez dezala inork pentsa zuzenean haien izenei egiten dienik erreferentzia Txola ta Potxola binomioak. "Askotan galdetzen digute zein den Txola eta zein Potxola, eta kalean bata edo bestea esan eta biotako zein jiratzten den zain ere egoten dira lagunak, baina geuk ere ez daukagu zehaztuta. Besterik gabe gustatu zitzaigun izena, Interneten santanetarako izen artistiko baten bila hasi ginenean", zehaztu du Ane Landak. Abenduan, Kontzezio eguneko parrandan bota zuten kuadrillan gustura arituko liratekeela musika jartzen herrian, eta kuadrillakide batek Gazte Asanbladan zebilkien anaiari esan eta egin diete lekua egitarauan. Eta hasiak dira urduritzen. Asmo handirik gabe aurkeztu zuten beren burua; DJ gisa bidea egiteko baino gehiago, ondo pasatzeko eta herriko jaien antolaketa beren alea jartzeko, baina inork ez du ukatuko ausartak izan ez direnik. Normalean hartu ohi den bidez kontrakoa hartu dute hasteko, ohikoagoa delako gazte lokalen batetik salto egitea plazara, eta ez alderantziz, baina pozik eta eskertuta daude Gazte Asanbladakoek eman dieten aukeraz. "Egun horretan gure aurretik joko dutenek oso goian lagako dute langa eta ez pentsa erreparorik ematen ez digunik, baina saiatuko gara giro horri eusten. Hala ere, badakigu ez dugula mundu guztiaren gustua egingo", aitortu du Zubiak. Ibiliak dira aurrez txosnan edota Ormola tabernan musika jartzen, lagun artean beti ere, baina santanetakoa debuta izango da eta ezin dute urduritasuna ezkutatu: "Gure herrian gaude, onerako eta txarrerako. Guri horrek egiten

digu ilusioa, Mendaron musika jartzeak, baina lehenengo aldia izango da guretzat eta enpatia eskatzen diegu herritarrei", dio Landak umorez. Playlista osatua dute dagoeneko, eta aurreratu dute denetarik izango dela kantutegian, baina bereziki, reggetoia. "Hasi zaizkigu gurasoak eta haien ingurukoak kantuak eskatzen, baina egun hori Gazteen Eguna da eta gazteentzako musika jarriko dugu", zehaztu dute.

REBEL BOYS, KUADRILLA EGUNEAN

Txola ta Potxola ez dira Mendaron debuta egingo duten mendaroar bakarrak, Kuadrilla Egunerako Rebel Boys herriko taldearen kontzertua iragarria baitago (23:30). Kaiet Salegi (baxua), Amets Fernandez (gitarra) eta Hodei Gallastegi (bateria) mendaroarrek eta Gorka Aiastui (ahotsa) debarrak osatzen dute taldea eta Andoni Riaño mendaroarra kide duen Mugi Panderoa erromeria taldearen aurretik joko dute, hilaren 27an. Iazko sanroketan berotu ziren Hodei, Amets eta Gorka taldea sortzeko eta iraila aldera hasi ziren martxan. Entseguak hasi eta gutxira, Eneko Arriola debarra batu zitzairen taldera, baina lan kontuengatik-eta laga egin behar izan zuen eta duela pare bat hilabete Salegi sartu da haren ordeiz. Punka, oi! musika eta hardcorea egiten dute, eta euskal taldeen bertsioak jotzen dituzte bereziki. "Gure lau abesti ere badauzkagu eta bosgarren batekin ari gara orain, baina gehienbat bertsioak jotzen ditugu momentuz. Udan sartu nahiko genuke lokalera grabatzera", esan du Aiastuik. Iaz, Noz elektrotxarangarekin izan zen Mendaron Gorka Aiastui, Gazteen Egunean, eta aurten beste aukera bat izango du, talde berriarekin. "Sekulako giroa sortu zen iaz. Oso gustuko ditut santanak, horko giroa, eta guretzako sekulako aukera da hau. Bigarren zuzeneko izango da. Debako Gaztetxean eman genuen estreinakoa eta espero dugu plaza gehiagotan jotzeko aukera sortzea". Azpeitian jo asmo dute aurki ■



JOXE EIZAGIRRE

Txupineroa

✍️ Ainara Argoitia

Joxe Eizagirre (Arrua Behea, Zestoa, 1964) brigadako langileak hasiko ditu aurten ofizialki santanak, uztailaren 24an, 19:00etan. Jaiak hasteko txaplogoa piztea ohore bat izango dela esan du, horrek sortzen dion urduritasuna ezkutatu gabe. Garbi dio ez dela luzamendutan jardungo balkoitik.



Antonio Gonzalez eta Joxe Eizagirre Santa Anan, jaietan.

■ ■ Lasaiago nengoke Katasorginaren ondoan ■ ■

Nola hartu duzu txupinero izateko proposamena?

Garbi esango dizut: ilusioa egin dit, handia, baina urduri nago; nik ez dut halako gauzetarako balio. Ez naiz ni ohore handien zale, eta ez nuen, gainera, imaginatu ere egingo halako lanetan jarriko nindutenik sekula.

Ez da estreinako aldia jai batzordean zure izena aipatu dena ba txupinero izateko! Ez dakit zer duzun, baina bistan da Mendaron estimuan zaituztela ume, gazte nahiz helduek.

Zer esango nizut ba nik! Nik neuk ere hori sentitu dut Mendaron, etxeko hartu nauzuela, baina ez dut nik apartekorik egin horretarako, lanetik aparte. Ahal baldin badut, laguntzekoa naiz, lanari ekitekoa, eta hor ere beti saiatu naiz hortan. Ibili ere egunero ibili naiz kalean, eta ezagutu ere denek egiten naute, txiki-txikienetatik hasita. Eta normala ere bada umeek ezagutzea, Haurreskolan eta eskolan ere ibiltzen garelako, hau edo bestea konpontzen. 2008an Mendarora iritsi nintzenean, hori bai, herri tristea iruditu zitzaidan. Aitor Errazu eta Inge Ugalderekin batera hasi nintzen udaletxean. Aurrez, Hernanin aritua nintzen eta han askoz kuadrilla handiagoa ginen lanean ere, eta beti zegoen saltsa handiagoa, herria bera ere handiagoa delako, baina orain, ez nuke beste ezergatik aldatuko hemengo lana. Herri txikian denak dira gertukoagoak, eta hori

batzuetan gerta daiteke pisua, baina gehienetan onerako izaten da. Herritarrek udaletxean bestela esango ez lituzketen gauzak ere kontatzen dizkigute guri konfiantza giroan. Konfiantza hain izaten da handia, gertatu izan zaidala noizbait etxeko argiren bat aldatzeko eskatzea ere, kalean antzeko lanen baten ikusita. Eskatu izan didate noizbait etxe atariko belar-zatia mozteko ere, jabea gerriko minez dagoelako. Halakoak asko. Eta berez ez dira gure lanak, baina nik ikusi badut edade handikoren bat edo ezinean dabilen norbait eta neu libre egon, ez dut dudarik egin sekula.

Nola bizi ditu brigadako langile batek jaiak?

Zuk ere ondo dakizu zer den beste guztiak parranda giroan dabiltzanean norbera lanean aritzea, eta gu halaxe ibili gara beti santanetan. Beti izaten da lan gehiago jaietan, eta ardura ere bai, gauza asko lotu behar izaten direlako, baina urte batzuk badira honetan ari garela eta hartu diogu tamaina ere. Gutxi-asko jakiten dugu zer datorren eta aurretik hasten gara prestatzen, baina beti izaten dira ezustekoak ere, eta erabiltzen dugu ardura pixkat, bai. Iaz, esaterako, urduri hasi genituen jaiak, kultur teknikaria ere falta izan genuelako denboraldi luzean eta hark ere lan handia kentzen digulako guri, baina esan beharra daukat herritarrek izugarri ondo erantzun zutela eta lagundu zigutela asko. Gazteen

Eguneko bazkarian, kuadrilla egunekoan, umeen egunekoak... asko lagundu zigun gazte-jendeak eta oso eskertuta gaude.

Txupinazoa bera ere urtero ikusiko zenuen ziurrenik, eta hortarako ere prest egongo zara orduan. Pentsatu al duzu zer esan edo?

Hori ez ba, eta horretxek nauka urduri! Zer esan behar dut ba nik! Nik baino gehiago esateko duenik egongo da Mendaron. Baina, tira, han plazan jaiak hasteko zain dagoenak ez du diskurtsorik entzun nahiko eta... lau hitz bota eta aurrera! Mendaroar denentzat jai zoriontsuak izan daitezen nahi nuke. Elkarrenganako errespetuan, goza dezatela herritarrek beren jaiiez. Garbi daukat herritarrek egiten dituztela jaiak handi eta aurten ere jai bereziak izango direla Mendarokoak. Txupina botatzeko momentuan alkatearen balkoian egoten naiz ni normalean, Katasorgina bota zain. Aurten ezberdina izango da, bai. Lasaiago nengoke aurten ere Katasorginaren ondoan, han ere izaten den arren kezkarik, katean ez trabatzeko.

Santanetatik zer gustatzen zaizu zuri gehien?

Santa Ana egunez Santa Ana ermita inguruan egoten den giroa gustatzen zait gehien. Azkeneko pare bat urtean Garagartzan hasi da egun hori, baina han goikoa berezia izaten da. Bertsolariak, trikitilariak, txosna... Santa Anan sortzen den giro hori berezia da oso. Beti ez dut ondo pasatu nik neuk han, beti izaten delako mikrofonoekin eta megafoniarekin gorabeheran bat eta ez naizelako ni gauza horietan abilena, baina tira, barre ere egiten dugu horren kontura. Akordatzen naiz urte batean Andoni Egañak jarri zuen saltsarekin. Haririk gabeko mikrofonoa eman genion eta sakatzen zion hark isiltzekoari Sebastian Lizasok pasatzen zion aldiro, eta ni urduri, non sartu ez nekiera. Bazekien hark ondo, baina, zertan zebilen. Txantxetarako gogoz Egaña, eta ni konturatzerako, jende guztia barrez lehertzeaz. Itzela da han bertsolariek jartzen duten giroa.

Brigadako langile batek izaten al du jaietan jai egiteko tarterik? Aurten, txupinero izanda, akaso parranda bat edo beste egin beharko duzu, ala?

Bai, bai. Hainbeste urtean jendea ere ezagutu dugu eta beti izaten da txorizo-mutur bat edo baso bete txakolin eskaintzen digunik, beti tentatzen gaituenik. Eta aurten ez dakit ba.

"Garbi daukat herritarrek egiten dituztela jaiak handi eta aurten ere jai bereziak izango direla Mendarokoak"

Bajan nago eta gauza handirik ezin behintzat. Sanjoanetan ere izan nuen Mendarora joateko tentazioa, gustatzen zait-eta hango jaiak, baina ibili nintzen bai eta ez, eta azkenean etxean gelditu nintzen. Ondo irten zela jakin dut, eta horrekin pozik nago, baina.

Lanean kalean dabilenak beti ikusten du gauza gehiago eta hamasei urte hauetan zer uste duzu aldatu dela Mendaron?

Ba gauza nabarmen bat bada: orain euskara gutxiago entzuten dela. Atentzioa deitu izan dit kalean eta eskolako jolastokian zenbat erdara entzuten den gaur. Kanpotik etorritako jende gehiago ere ikusten dut.

Gizon serioaren itxura daukazu?

Itxura, oraintxe esan duzu. Ni parranda asko egindakoa naiz gazteagotan. Arrua Behekoa naiz eta egin ditut neuk ere, baina Mendaron beti zaindu dut gehiago hori, gero, egunero hor nagoelako denen aurrean lanean. Jakingo du jendeak bereizten, baina neu naiz halakoxea ■



Joseba Alvarez eta Joxe Eizagirre, brigadako langileak



Andoni Riaño eta Alaitz Almortza.

Ez dute gure bueltan aurkezpen handirik behar Alaitz Almortzak eta Andoni Riañok. Mauxitxa txarangatik ezagutuko dituzue ziurrenik, baina Mugi Panderoa erromeria taldean ere nabarmentzen dira Almortzaren tronboi eta Riañoren tronpeta hotsak, eta uztailaren 27an Mendaron joko dute, Kuadrilla Egunez.

 Ainara Argoitia

■ Mugi panderoak santanetan

Entsegutik entsegura dabilta Andoni Riaño eta Alaitz Almortza, lasai bazkaltzeko ere astirik gabe gaur. Hamaika saltsatoko perexila dira biak ere, eta betea dute agenda. Elkarrekin dabilta Mauxitxa txaranga eta Mugi panderoa erromeria taldean, eta horrez gain, Elgoibarko Udal Musika Bandan eta dultzainero lanetan ere badabil Riaño. Gaur, Mugi Panderoaz hitz egiteko batu ditugu. Hamar bat urte badira eibartar talde batek Mugi Pandero erromeria taldea sortu zuela eta plazaz plaza dabilta geroztik. Eta aurten, Mendaron arituko dira santanetan, Kuadrillen Egunean, uztailaren 27an. Hirugarrenegoz joko dute Mugi Panderokoek Mendaron, duela bi urte Garagardo Azokaren baitan ekarri zituztelako, eta iaz itzuli zirelako santanetan, Bulego taldearen hasierako gonbidatu gisa, nahiz Bulegori berari ere gain hartu zioten. Aurtengoa, baina, berezia izango da, Riañoren debutekoa izango delako, besteak beste. "Sekulako ilusioa egiten dit herrian jotzeak. Ia nola iristen naizen!", dio.

Eibarko sanjoanetan igo ziren estreinakoz Mugi panderoak oholtzara duela hamar urte, txosnaguneko egitaraua osatze aldera, Miren Gisasola abeslari panderojole eta taldeko

arima denak Eibarko *eta kitto!* aldizkariari emandako elkarriketa batean aitortua duenez. Alaitz Almortzaren ama Marisol Arrillaga soinu irakaslearen ikasleak ziren pauso hura eman zuten lau lagunak: bi soinu-jole eta bi panderojole. Bete egin zuten ohol-tza estreinak aldi hartan, gozatu zuten musikariak publikoak berak bezainbeste, eta animatu zituen horrek jarraitzera. Taldea hazten joan da geroztik, zazpi laguneko erromeria taldea izateraino. Alaitz Almortza 2017ko ikasturtean gehitu zen taldera eta Eibarko Gaztetxean eman zuten kontzertua izan zen bere estreinakoa. Almortzaren atzetik batu ziren bateria jolea, baxu jolea eta gitarra jolea, eta taldean sartzen azkena Andoni Riaño bera izan da, Danel Montero tronpeta joleak lagatako lekua betetzera. Gallartako Kotarro auzoan egin zuen debuta. "Alaitzek berak proposatu zidan niri taldera batzea, eta ez dut ukatuko poza eman zidala, baina kontu askorekin nenbilen, agenda topera neukan, eta zalantza ere egin nuen, ez nekielako behar bezala erantzuteko moduan izango nintzen, denari bai esanda. Baina animatu nintzen, erromeria taldea delako eta niri mundu hau izugarri gustatzen zaidalako", aitortu du Riañok. Ez dauka esan beharrik, Mendaron

**Duela hamar urte sortu zuten
Mugi Panderoa taldea, Eibarren,
sanjoanetako txosnaguneko
egitaraua osatzeko eta
plazaz plaza dabilta geroztik**

ez baitago hura gabeko jairik. "Parranda giroarekin eta euskal musikarekin lotzen dut nik erromeria, eta plaza bete lagunekin. Mendaron beti funtzionatu izan du horrek", zehaztu du.

Talde ezagunen bertsioak jotzen dituzte Mugi Panderokoek, gaurkoak eta atzokoak, arrastoa laga dutenak. Kantu propioak ere badituzte, Alaitzen amak sortutakoak, familiaren baserri-etxearen izen bereko *Zulueta* kalejira eta *Maleta*, baina publikoak kantu ezagunak nahiago dituela jabetu dira plazaz plaza egindako ibilietan. "Jotzen duzu Gozategiren *Porru patata* eta hor ikusten dituzu 10 urtetik 60 urtera bitartekoak kantuan", dio Almortzak. Ikasi dute publikoa irakurtzen, nork zer nahi duen begiratu batean asmatzen, eta konplizitate hura bera lortu dute oholtzakideen artean ere. Hala ere, ibiliak ibili eginda ere, Mendaroko kontzertuan nerbioak baretzen nahikoa lan izango duela aitortu du Riañok: "Ia lortzen dudan tenplatuta iristea kontzerturako, baina gehiegi tenplatu gabe", bota du irribarrez. Ez du lan erraza izango, berezia izan ohi delako Kuadrillen Eguna Mendaron, eta aurten, zazpi eguneko jai-ilaran seigarrena izango delako, jaietako egun handiaren biharamuna gainera. Patxada handiagorekin hartuko du lagunak. "Mendarokoa plaza berezia da. Publikoa oso sartuta egoten da erromeria giroan, eta plaza bete lagun dantzan ikustek eraman egiten gaitu. Nik neuk oso oroitzapen ona daukat iaztik". Publikoa eta kontzertua emateko baldintzak -soinu-kontuak bereziki- dira kontzertu bat ahaztezina egiteko bi osagai nagusiak, eta horretan Eibarko Arrate jaiak eta Debako sanrokeak ere oso bereziak direla aitortu du Almortzak. "Norbera ondo entzutea printzipala da oholtzan. Hori ez bada ziurtatzen, zaila da musikariak gozatzea,



LUTXIMAK
MUNDUARZABAL 2, MENDARO
943 03 38 35 - 943 99 59 72

Oporrak:
Abuztuaren 10etik 26ra!



Ondo pasa Santanetan!



electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behea - Eibar **Ondo pasa jaiak!**
943 202 268



moraskillo
943 033 631

24/25
eskola kanpaina
martxan!

Ondo pasa jaietan!



TAXI

Kontxi Urain MENDARO

Mobila:
607 575 728



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA, BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.

SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialdea SE-5 • 20850 Mendaro
943 741 658 / 639 710 183 • Faxa: 943 742 346
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com

ABUZTUKO ORDUTEGIA:

**ASTEARTETIK
LARUNBATERA:**
08:30-13:30
(10etik 26ra itxita)

OLATZ ILEAPAINDEGIA
UNISEX

625 999 694

Ondo pasa jaietan!

[@olatz_ileapaindegia](https://www.instagram.com/olatz_ileapaindegia)

eta musikariak gozatzen ez badu, behekoek ere igarri egiten dute", zehaztu du Riañok.

Behetik goia ikusten den modu berean edo hobeto ikusten da goitik behea. "Ni asko ibilitakoa naiz behean, erromerian, eta orain konturatu naiz goitik dena ikusten dela, eta buff!". Jokoa ere bihurtu da hori Mugi Panderokoentzat, plaza bakoitzean nabarmentzen den bat aukeratzea, Txus bat. "Plaza guztietan izaten da Txus bat, eta elkarri begiratze hutsarekin aukeratzen dugu normalean bat denon artean. Gure Txus".

Jolas giro hori nabarmena da oholtzan Mugi Panderokoen artean, eta horixe kutsatzeko asmoz datoz Mendarora. Beroketa luzea eginda iritsiko dira, gainera. Joan zen barikuan Eibarko Amaña auzoko jaietan jo zuten; hilaren 22an Mutrikun izango dira, Madalen jaietan; 24an Urkaregiz bestaldera arituko dira, Etxeberrin, eta Santa Ana egunez Areetan emango dute kontzertua, Riañorik gabe azken hori, "mendaroar batek ezin duelako Santa Ana egunean hutsik egin".



Barre egin du Almortzak, jai-eguna baimena eman aurretik hartua duela iradokiz lagunak. Txarangarekin eta bestela, dozenaka parranda egin dituzte elkarrekin eta jarri ditugu elkarri begira, lagunarengandik zer nabarmenduko luketen galdetuta. Mugi Panderoa taldean Almortza "makulu" izan duela aitortu du Riañok; haren eskutik sartu zela taldera eta haren ondoan izugarri ikasi duela, eta "artista hutsa" dela dio Almortzak Riaño: "Banekien hamaika konpromiso zituela, baina gaueko lana da gurea, eta lapurtu genizkion lotarako zituen orduak ere" ■



Kultur eskaintza

Bete-beteak datoz aurten santanak eta ahalegindu gara orrialde hauetan aurtengo kultur eskaintza laburbiltzen. Hemen azaltzen direnez gain eta beste orrietara eraman ditugun mendaroez gain, Tatta&Denso raplariak, eta honako DJ hauek ere izango dira: Arno, Davila, Saioa Anersote eta Watxas.

Elektrotxufla

Uztailaren 20an, 19:00etan

Euskal Herriko I. Elektrotxaranga Lehiaketa irabazi zuten 2022an, Azpeitian, eta aurten hamar urte bete dituzte sortu zirela. Mendaron, ez dute aparteko aurkezpenik behar. Etorriak dira aurrez, beren errepertorio zabalarekin. Aurten ere, herriko gazteek eskatuta datoz, kaleak dantzan jartzera.



Añube

Uztailaren 20an, 23:00etan

Jon Uribesalgo (gitarra) Beñat Gonzalez, (gitarra), Julen Garmendia (saxofoia), Beñat Lizarralde (baxua), Aitor Bedia (ahotsa) eta Egoitz Goikoetxeak (bateria) osatzen dute taldea, Arrasate, Bergarako eta Ataungo gazteek. 2020an sortu zuten taldea eta rock-punka egiten dute. Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* abestian aipatzen den "ainubian" hitzetik datorkio izena taldeari. Eguzkia egun osoan sartzen ez den zuloari esaten zaio añubia.



Akerbeltz

Uztailaren 24an, 23:00etan

Hamabost urte baino gehiagoko eskarmentua duen erromeria taldea dira. Rock kutsuko erromeria gisa hasi ziren, Metallica, AC/DC, Queen, Guns&Roses eta Su Ta Gar moduko taldeen bertsioak egiten, baina laster hasi ziren beste estilo batzutako kantak gehitzen. Egun, kanta euskaldunak jotzen dituzte bereziki, estilo askotarikoak, eta kantu mitikoez gain, azkenaldiko kantu ezagunak ere jotzen dituzte. Plazaz plaza dabilta, erreferente bihurtu dira erromeria giroan, eta zuzeneko indartsuak bereizten ditu.



Elgoibarko Udal Musika Banda

Uztailaren 25ean, 13:00etan

Mendaron ez dute aurkezpenik behar. Iaz, Debako Udal Musika Banda gonbidatu zuten santanetara, eta aurten Elgoibarkoen txanda izango da. Gorka Mujika zuzendari dutela etorriko dira.



Verdini dantza taldea

Uztailaren 25ean, 18:00etan, frontoian

Down sindromea duten dantzariak osatzen dute Verdini dantza taldea eta 30 urtetik gorako ibilbidea duen dantza konpainia da. Isabel Verdini dantzari eta koreografoak sortu zuen, down sindromedun bere ilobaren omenez, down sindromedunen inklusioa sustatzeko. Dantza garaikidea egiten dute, eta afektutik eta sentsibiltatetik komunikatzea eta elkarreragitea bilatzen dute; pertsona guztien gaitasunak bistaratzea.



'Gurpil gainean' antzezlan

Uztailaren 25ean, 19:30ean

Demode Quartet konpainiaren antzezlan da *Gurpil gainean*, eta umorea eta kantua uztartzen ditu haien ikuskizunak. Donostiako Zinemaldiko gala nahiz 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren edo Basque Culinary Centeren inaugurazio-galax zabaldu izan dituzte eta 2021ean Max Saria jaso zuten *Kutxidazu bidea*, *Ixabel* musika ikuskizunarekin. Kuartziklo baten gainean iritsiko dira eta kalez kale ibiliko dira parodiak egin eta *a capella* kantatzen.



Lisker

Uztailaren 25ean, 00:00etan

70eko hamarkadan sortu zuten Lisker folk-rock taldea Eibarren, Jeiki eta Zima taldeetan ibilitako musikariak. Itoiz eta Errobi taldeekin maiz partekatu zuen agertokia. Haatik, 80ko hamarkadan rock emanaldiak utzi, eta erromeria talde bilakatu zen. Disko bakarra dute, 1979an argitaratutakoa, baina kontu ezin beste plaza egin dituzte. Mendaron urte askoan etorri dira, eta nekez engongo da ezagutzen ez dituenik.



Beranduegi

Uztailak 26, 19:30ean

Erromeria taldea da Beranduegi eta beren buruaz diote euskara eta euskal kultura parranda giroan eta adin ezberdinen artean sustatzeko sortu zirela, euskal musikaren transmisioa ziurtatzeko. Ainize Perez (Ugao, 1997) eta Mikel Markina (Arrigorriaga, 1998) dira sortzaileak, baina zazpi lagun dira gaur taldean. Beste taldeen bertsioak egiten dituzte eta erromeria punki xamarra direla diote, Ska-P, Eskean Kristo, La Polla Records edo Eskorbuto moduko taldeen abestiak gehitzen dituztelako.



Rockalean elektrotzaranga

Uztailak 27an, 18:00etan

Musika munduan denbora luzea daramaten bost musikaririk osatzen dute Rockalean elektrotzaranga, eta rock eta pop estiloko kantu ezagunek osatzen dute haien kantu-zerrenda. Berezia edo ezohikoa da haien formazioa: bi bateria jole, gitarra jotzaile bat, sousaphone-a eta ahotsa.



Oskarbe

Uztailak 28, 21:00etan

Hernaniarrak dira Oskarbe taldekoak. Bost lagunek osatzen dute taldea eta erromeria giroko kantuak jotzen dituzte, Euskal Herriko bertoko nahiz kanpoko talde mitikoen bertsioak.



GORTA HERRI JAIK!

ehbildu

Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5 - 943 755 219

Ondo pasa jaietan!

ASKETA S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS

943 191952

ondo pasa jaixetan!!!

LAGUN BETIKOAK

943 756 222

Herriko Enparantza, 14 - Mendaro

PINTXO BEROAK

PINTXO HOTZAK

OGITARTEKOAK

HANBURGESAK

Ondarbeltz

TXIRINGITOA

Ondarbeltz hondartza - Mutriku

Bisita gaitzazu Ondarbeltz txiringitoan,
Mutrikun, zain eukiko gaituzu!

ORMOLAK TABERNA

Azpilgoeta kalea - Mendaro

RAZIOAK
PLATER KONBINATUAK

Egin zure erreserba:

943 543 829

Santa Ana jaietako egitaraua

20 ZAPATUA: GAZTEEN EGUNA

10:00 Frontenis txapelketako finala.

12:30 Sari banaketa ekitaldia eta txupinazoa, Gaztetxean.

Ondoren, karropoteoa.

15:00 Gazteen bazkaria eta jolasak, frontoian.

19:00 Elektrotxufla elektrotxarangarekin kalejira.

23:00 Añube musika taldearen kontzertua, Herriko Enparantzan.

Ondoren, DJak. Tatta & Denso raplariak eta Txola eta Potxola DJak, plazan.

21 DOMEKA: ADINEKOEN EGUNA

12:00 Meza, Garagartzako parrokian.

13:00 Adinekoei omenaldia, frontoian.

Ondoren, Mendaroko Gazteak dantza taldekoen dantza emanaldia.

14:30 70 urtez gorakoen bazkaria, Aizpe gastronomia elkartearen, hango zuzendaritza taldearen eskutik.

Ondoren, Arno DJarekin dantzaldia, Aizpen.

24 EGUAZTENA: TXUPINAZOAREN EGUNA

19:00 Txupinazoa eta Katasorginaren jaitsiera, Herriko Enparantzan.

Ondoren, Bizi Poza txarangarekin eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsakoein kalejira.

19:30 2023. urtean jaiotakoei ongietorria, udaletxeko udalbatza aretoan.

23:00 Akerbeltz taldearen kontzertua.

Ondoren, Davila DJaren emanaldia.

25 EGUENA: SANTIXAGO EGUNA

11:00 Puzgarriak, ikastolako jolastokian.

12:30 Meza, Garagartzako parrokian.

13:00 Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Enparantzan.

18:00 Verdini dantza taldearen emanaldia, frontoian.

19:30 'Gurpil gainean' kale antzerkia, Mendarozabalen hasita.

22:00 Nagusien danborrada.

00:00 Erromeria Lisker taldekoekin.

26 EGUAZTENA: SANTA ANA EGUNA

10:00 Txistulariekin prozesioa Herriko Enparantzatik Garagartzako elizara.

11:00 Meza nagusia, Garagartzako elizan.

Ondoren, erromeria Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin eta Unai Andonegi eta Imanol Goikoetxea trikitilarekin, Bustin Alde elkarteko laguntzarekin.

18:00 Herri kirolak, frontoian, lehenengo mailako aizkolariekin: Eneko Otaño, Mikel Larrañaga, Suharri Rodriguez, Xabier Zaldúa, Ugaitz Mugertza eta Julen Alberdi.

19:30 Erromeria Beranduegi taldearekin, Herriko Enparantzan. 21:00etatik 23:00etara, atsedena.

Ondoren, Anersote DJarekin saioa.

27 ZAPATUA: KUADRILLEN EGUNA

12:00 Bizipoza txarangarekin kalejira.

13:00 Paella lehiaketa.

15:00 Kuadrillen herri bazkaria.

18:00 Rockalean elektrotxarangarekin kalejira.

22:30 Playback lehiaketa.

23:30 Rebel Boys taldearen kontzertua.

00:30 Mugi panderoa taldekoekin erromeria.

Gero, Watxas DJa.

28 DOMEKA: UMEEN EGUNA

11:00 Txirrista erraldoia eta puzgarriak.

14:30 Haurren herri bazkaria eta jolasak, frontoian.

18:00 Haurren danborrada, ikastolan hasita, eta Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

19:30 Mendaroko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsakoen kalejira.

21:00 Oskarbe taldearekin erromeria.

22:00 Katasorginaren igoera.

Ondoren, eta gauerdia arte Oskarbe taldearekin erromeria.

EGUNEKO ZENTROA ZUREKIN S.L.



Ondo pasa jaietan!

Azpilgoeta, 32
20850 Mendaro

Tel.: 943 031 746
e-posta: zurekin@euskalnet.net



Ondo pasa
Santa Ana
jaietan!



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9 - 20850 Mendaro
943 756 112 / 636 497 485 - www.iraolagoitia.com



Artisau aroztokia



Etxe-aldaketa zerbitzua



Sailmenta eta banaketa



Esiaimertua eta kalitatea

Ondo pasa jaietan!



IRIONDO

www.iriondo.com

Jai zoriontsuak
opa dirizkizue!

AUTOZERBITZUA

ELKAR
COVIRAN



Ondo pasa jaietan!

Kilimon Hiribidea, 5 behea
MENDARO - 943 608 031

Enkarguak hartzen ditugu

Egin
bazkarirako
zure
erreserba!



943 756 028

Casagorri, 32 - MENDARO

Ondo pasa
santantetan!



MARIA BARROCAL

DJ Mari

✍️ Ainhoa Andonegi

18 urte zituela hasi zen Maria Barrocal (Zumarraga, 1979) DJ izateko lanetan. Dantzalekuetara joaten zen lagunekin, baina berari dantza egitea baino gehiago, musika jartzen zuena interesatzen zitzaion. Adi-adi egoten zen beira atzean botoiz beteriko mahai hartan lanean egoten zenari begira. Poliki-poliki berak ere ikasi zuen DJ ofizioa, eta lanean hasi zen. Garai hartan lehenengotariko emakumezkoa izan zen DJ lanetan. Zortzi urtez egon zen Elgoibarko Guass diskotekan lanean, eta Euskal Herriko beste hainbat aretotan ere ibilitakoa da musika jartzen. Gaur Urazandiko jaietan egongo da, Remember Guass saioarekin.



“Sekula baino gehiago ari naiz gozatzen DJ lanetan”

Nola hasi zinen DJ lanetan?

Zumarragakoa naiz ni, eta lagunekin Urretxura joaten ginen asko. Hango taberna batek DJa zeukan, eta hari begira egoten nintzen beti. Atentzioa ematen zidan bere egitekoak, eta orduak pasatzen nituen egiten zuena ikusten eta harengandik ikasten. Behin esan egin nion DJa izatea nahi nuela, eta berarekin ikasi nuen oinarritzkoena. Gero, nire kabuz ikasi nuen gainerakoa, eta DJ lehiaketetara aurkezten hasi nintzen.

Aretoan musika jartzen duen pertsona da DJa, baina zein da zehazki DJaren egitekoa?

Ez da musika jartzea bakarrik, gauza asko izaten ditugu kontuan. Aretoa zein den, zenbat denborako saioa egin behar dugun, nolako publikoa daukagun aurrean... horren arabera prestatzen ditugu saioak, eta klabea abestiak ondo nahastean dago. Aurikularretik entzuten dugu etorriko den abestia, eta beste belarritik aretoan jarrita dagoen musika. Bien arteko nahasketa ondo egin behar da, eta horretarako

irteerako eta sarrerako doinuen erritmoak ondo ezagutu behar dira. Urteekin asko ikasten da, eta nik gaur egun entzumenarekin egiten dut guztia, baina hasieran kolpeak kontatzen egoten nintzen, jakiteko noiz askatu behar nuen kantu bat eta bestea noiz sartu. Ez da hain sinplea, bere artea dauka. Edonork ikasi dezake, baina orduak eman behar dira, gauza guztietan bezala.

Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo emanaldiak?

Jazz Berri dantzalekuak antolatutako lehiaketa batean hartu nuen parte estreinakoz, eta esperientzia oso polita izan zen. Emakumezko bakarra izan nintzen, eta gizonezkoek harrituta begiratzen zidaten. Bilboko Nyx aretoan ere hartu nuen parte beste lehiaketa batean, eta hirugarren egin nuen. Haren ostean Guass dantzalekuko lehiaketara aurkeztu nintzen, eta gustatu zitzairen egin nuena. Handik gutxira lana eskaini zidaten, eta zortzi urtez egin nuen lan bertan.

Zer izan zen zuretzat Guass aretoa?

Nire etxea izan zen. Han hazi nintzen DJ moduan eta baita pertsona moduan ere. Laguntza handia izan nuen garai hartan, eta oso ondo hartu ninduten. Sektore hau oso lehiakorra da, inbidiak daude, baina nik ez dut sekula arazorik izan inorekin; guztiz kontrakoa. Lagun oso onak izan ditut, eta guztiengatik ikasi dut zerbait. Izan daiteke lehenengotariko DJ emakumezkoa izan nintzelako edo. Oso mundu maskulinoa da hau. Gaur egun ikusten dira emakume gehiago, baina oraindik gizonezkoak askoz gehiago dira.

Nolakoa da DJ lana?

Niri asko gustatzen zitzaidan nire lana. Asteburuetan egiten nuen lan: bariku gauean eta zapatu iluntze-gauean Guassean eta dometekan Donostiako beste areto batean. Ordu gehienak gauetz egiten nituen, eta egia da gauetz lan egitea nekeza dela. Batzuetan egun txarrak izaten dituzu, baina hala ere, aurpegi ona jarri behar diozu publikoari. Sesioa amaitu ostean kabinatik irteteko zain egoten da jendea autografoak eskatzeko, argazkiak ateratzeko, zoriontzeko... eta kaso egin behar zaie, azken batean hori ere lanaren parte delako. Guass-eko etaparen ostean atsedena hartzea erabaki nuen eta laga egin nuen lanbidea, baina orain dela urte batzuk berriz itzuli



*"Barakaldoko BEC aretoan
egin nuen emanaldia
izan da niretzako handiena"*

naiz, eta oso gustura dihardut. Sekula baino gehiago ari naiz gozatzen. Hilean pare bat bolo egiten ditut, eta askoz bizitza lasaia goa daramat. Lehen nire lanbidea zen, baina orain *hobbie* moduan daukat. Nik Eroskin egiten dut lan, eta bezero asko harritu egiten dira jakiten dutenean Guass-eko DJa izan nintzela.

Zein esango zenuke dela zure ibilbidean izan duzun lorpen handiena?

Barakaldoko BEC aretoan egin nuen emanaldia izan da niretzako handiena. Sei mila lagun jarri nituen dantzan, eta sekulakoa izan zen. Saioa

amaitu nuenean jende asko gerturatu zitzaidan zoriontzera, bideoak bidali zizkidaten hurrengo egunean eta negar ere egin nuen hunkituta. Azarorako deitu naute berriz, eta oso pozik nago.

Garai batean nonahi zeuden dantzalekuak, baina gaur egun gehienak itxita daude. Guass, Jam, Txitxarro, Jazz Berri... oso ezagunak ziren inguru honetan. Zein oroitzapen dituzu?

Nostalgiaz gogoratzen ditut. Itziartik edo Arroatik pasatzean, Txitxarro eta Jazz Berri itxita ikusteak oroitzapen asko ekartzen dizkit. Venecia aretoa tarteka zabaltzen dute, baina dantzalekuen garai hura bukatu zen. Guass ixteak ere pena handia eman zidan, eta eraikina bera botatzeak are gehiago. Nire bizitzako ordu asko pasatu nituen han. Txitxarorra ere sarri joaten ginen, eta nire lagunak dantzara joaten ziren bitartean, ni DJaren ondoan geratzen nintzen, begira-begira. Beti gustatu izan zait.

Teknologiaren aurrerakuntzak nola eragin dio DJ ofizioari?

Lehen biniloekin egiten genuen lan, eta gaur egun digitala da dena. Ez dauka zerikusirik; niri gehiago gustatzen zitzaidan biniloekin lan egitea, baina aro digitalean gaude, eta horrek ere baditu bere abantailak. Lehen binilo pila bat eraman behar izaten nituen maleta batean, eta gaur egun bi pendrive eta aurikularrak eramanda nahikoa daukat. Badaude oraindik areto batzuk biniloak erabiltzen dituztenak, baina gutxiengoak dira.

Gaur gauean Urazandin izango zara. Zer eskainiko duzu?

Remember musika jartzen dut nik gehien bat, lehengo garaikoa. Jendeak oso gustura entzuten du, bai lehengo garaikoek eta baita gaurko gazteek ere. Gustatzen zait suabe hasi eta topera amaitzea, jendea gehiagorako gogoz gera dadin. Pozik nago Urazandira joateko, eta seguru nago jendeak ondo pasatuko duela. BEC moduko aretoetan boloak egitea gauza handia da, baina herrian bertan aritzea ere bai. Jende askok ezagutzen nau, eta gertutasun hori ere polita da. Herriarentzat gauzak egitea gustatzen zait. Iaz ere egin genituen DJ emanaldiak Elgoibarko txoko diferenteetan, eta oso polita izan zen. Elgoibarren zaletasun handia dago eta DJ gazte asko daude.

Hemendik aurrerako asmoak?

Euskal Herritik kanpoko aretoak ditut helburu. Errioxan eta Kantabrian lotuta ditut bi emanaldi, baina Bartzelonako edo Madrilgo aretoren batean musika jartzea asko gustatuko litzaidake, edo Ibizan. Frantzian ere DJ mugimenduak badauka indarra, eta hango aretoren batean ere gustura jarriko nuke musika. Momentuz ez daukat erretiroa hartzeko asmorik. Gaztea nintzenean pentsatzen nuen 40 urterekin ez nintzela honetan ibiliko eta begira, 45 egingo ditu barikuan [gaur]. Oraindik denboraldi baterako soka badaukat. Eskerrak eman nahi dizkiet lagunei eta etxekoei, urte hauetan guztietan babestu nautelako.

URAZANDIKO JAIK

12 BARIKUA

19:00 Jaien hasierako traka, parkean. Kima estetika eta ile-apaindegiarekin.

Jarraian, txapel, txabes eta igel toka txapelketa, Herri Eskolako aparkalekuan.

19:30 DJ Tilla.

22:00 Musika: 80's classic.

00:00 DJ Mari.

13 ZAPATUA

10:30-12:00 Fitness Tx4 body combat saioa.

12:00 Historiaurreko teknikak, Jose Julian Markezekin.

12:00-14:30 Mauxitxa txarangaren kalejira.

14:30 Herri bazkaria, Mauxitxak giroa. Zozketak egongo dira.

16:30 Mariatxiak.

17:30 Dantzaldia, malabareak, akrobaziak eta Irati zirkua. Herri Eskola gaineko aparkalekuan.

18:30 Buruhandiak.

19:00 DJ Tilla.

22:00 Kitziki eta Versionarios taldeen kontzertua.

00:00 DJ Tilla.

14 DOMEKA

11:00 Umeentzako parkea. Puzgarriak, apar festa...

Eguerdian, otarraren zozketa.

16:00 Azken traka.

Brasilgo eta Kazakhastango dantzariak hartuko dute parte Nazioarteko Folklore Jaialdian, Haritzekoekin batera

Nazioarteko Folklore Jaialdia uztailaren 24an izango da, 22:30ean, Maalako parkean. Aurten Brasilgo eta Kazakhastango bi dantza talde gonbidatu dituzte, eta euren herrialdeetako dantzak ekarriko dituzte. Haritz dantza taldekoek, berriz, Euskal Herriko dantzak taularatuko dituzte.

BACNARE DANTZA TALDEA

Brasilgo Bacnare dantza taldea Recife hiritik iritsiko da Elgoibarrera. Herrialdeko hiri zaharrenetarikoa da, eta ia milioi eta erdi biztanle ditu. Tradizioa, sormena eta kultura-aniztasuna dira Recifeo biztanleen nortasun-ezaugarri nagusiak, eta musikak ere paper garrantzitsua dauka. Recifeo kale inauteria oso ezaguna eta koloretsua da, eta haren esentzia ekarriko du Bacnare taldeak Elgoibarrera. 21 lagunek osatzen dute taldea: 15 dantzari, bost musikari eta arduraduna.



NAZ FOLKLORE KONPAINIA NAZIONALA

Naz Folklore Konpainia Nazionala etorriko da Kazakhastandik. 43 lagunek osatzen dute konpainia, 26 emakumek eta 17 gizonek. Kazakhstan puzzle erraldoi bat da Ural, Siberia ipar-ekialdean eta Errusiaren artean. Naz folklore talde nazionalak Europako eta Asiako herrialde ugari bisitatu izan ditu, eta bere folklorearen baitan milaka urtetako giza tradizio eta balioekin harmonian dauden kantu eta musikak batzen ditu. Dantzek harmonia handiz konbinatzen dute Asia eta Europa.



HARITZ EUSKAL DANTZARI TALDEA



Haritz euskal dantzari taldekoek aurten ere bi zati dantzatuko dituzte. Lehen zatian, Guardiako kuadrillako hiru herritako dantzak taularatuko dituzte: Guardiako paseoa; Iekorako Bertzijanako Amabirjinaren kate-dantza; Eltziegoko *Cuatro calles*, *El arbol eta jota*; eta Eskuernagako *Bailaos*, *Te ví*, *El culo* eta *Pájara pinta*.

Bigarren agerraldian Lapurdiko arropa koloretsu, musika alai eta dantza dotore nahiz dibertigarritz beteko dute Maala. Haritzeko dantzariak Betti Beteluk irakatsi zizkien dantza-luze, Xinple, Marmutx, Lapurdiko makil-dantza, Gabota, Bizar-dantza eta Betti Beteluk berak prestatutako fandangoa.

Uztailaren 26an eta 27an ospatuko dituzte San Roke jaiak

San Roke Eguna abuztuaren 16an bada ere, uztaileko azken asteburuan ospatuko dituzte aurten ere San Roke auzoko jaiak. Hilaren 26an hasiko dira festak txapligo eta suziri jaurtitzearekin, eta umeentzako jolasak izango dira ondoren. Txokolate jana ere egongo da, eta gauean afaria. DJ saioa eta bolo tiraldia ere lotu dituzte. Hilaren 27an, berriz, umeentzako jolasak, Dj saioa eta bolo txapelketa izango dira, besteak beste. Abuztuaren 16an, San Roke Egunean, meza egingo dute San Rokeko ermitan, eta ondoren hamaiketako banatuko dute.



Move taldearen kontzertua, hilaren 18an, Mendaron



Iñigo Ruiz de Gordejuela mendaroraren Move taldeak kontzertua emango du hilaren 18an, Mendaron. Alberto Areta (saxofoia), Javier Callen (kontrabaxua), Borja Barrueta (bateria) eta Iñigo Ruiz de Gordejuela berak osatzen dute taldea, eta jazza egiten dute. Sarrerak Uztargi tabernan salduko dituzte 8 euroan, bai eta egunean bertan San Agustin kulturguneko atean ere, aurrez amaituko ez balira.

San Pedro jaietako errifako irabazleak agertu dira



San Pedro jaietan saldutako errifen irabazleak agertu dira: Maitane Ibañezek jaso du lehenengo saria (argazkian), eta Oihane Osoro izan da bigarren sariduna.

Larrain dantza ikasteko bideo tutoriala jarri dute online

San Bartolome jaietako txupinazoaren aurretik Larrain Dantza herrikoia dantzatuko dute, eta dantza ikasteko bideo tutoriala jarri du Udalak Youtuben. Bideo tutoriala edozein pertsonak Larrain Dantzaren urrats eta mugimendu bereizgarriak ikasi ahal izateko diseinatu dute.

Sanbartolomeetako Jubilatuen Eguneko bazkaritarako tiketak, salgai

San Bartolome jaietako Jubilatuen Eguneko bazkarirako eta afal aurreko mokadurako txartelak salgai daude dagoeneko. Uztailaren 31ra arte erosi daitezke txartelak astelehen eta barikuetan, 11:00etatik 12:00etara bitartean, Jubilatuen Biltokian bertan. Txartelak 10 euroko prezioa dauka.

Bagatoz Eguna, ekintzaz betea

Udalekuetako lehenengo txanda amaitu zen egunean festa egin zuten udaldian izena emanda dauden 260 ume inguruk Elgoibarren. Bagatoz Eguna antolatu zuten Atxutxiamaiak eta Udal Ludotekak elkarlanean, eta jai giroa nagusitu zen herriko kaleetan. Sokamuturrarekin hasi zuten eguna. Gero, kalejira egin zuten Bergarako erraldoi eta dultzaineroekin, eta eguerdian denek batera bazkaldu zuten. Arratsaldean, Betisua txarangaren erritmora egin zuten kalejira. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus



Aurrez zuzendaritzan egondako lagunei aitortza egin die Sanlok urteko batzarrean

Urteko batzar nagusia egin zuen Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeak joan den uztailaren 5ean. Bazkideei kirol eta ekonomia balantzeen berri emateaz gainera, zuzendaritzatik igarotako lau kide omendu zituzten, azken zuzendaritzako kide izandako Fidel Gomez eta Francisco Ribao batetik, eta Sanloko presidente izandako Carlos Ayesta eta Jose Ignacio Jauregi bestetik. Oroigarri bana eman zieten. Iazko udan lanean hasi zen zuzendaritzak lehen urtearen balantzea egin zuen batzarrean. Diru kontuei dagokionez, 166 euroko emaitza ekonomiko negatiboa eduki du kirol taldeak (Sarrerak: 162.370 euro / Gastuak: 162.537 euro). Aurreko denboraldian 4.604 euroko emaitza ekonomiko negatiboa izan zuten. Sanloko jokalarri ugari deitu dituzte



aurten ere Gipuzkoako zein Euskadiko eskubaloi selekzioekin jokatzeko. Gipuzkoakoak 28 jokalarri eta Euskadikoak 11.

Furnier eta Agirre Euskadiko selekzioarekin lehiatu dira Murtzian eta Asturiasen



Infantil eta kadete mailetakoa Euskadiko selekzioen deia jaso zuten Sanloko jokalarri Ekin Furnier Egiguren mendarorak eta Ane Agirre Barua elgoibartarrak. Furnierrek kadete mailako Euskadiko selekzioarekin parte hartu du Espainiako hondartza eskubaloi txapelketan. La Manga del Mar Menor (Murtzia, Espainia) herriko Puerto Bello hondartzan jokatu zuten txapelketa uztailaren 1etik 3ra bitartean. Euskadi laugarren postuan sailkatu zen eta Madrilo selekzioa gailendu zen txapelketan. Ane Agirre, berriz, Asturiasen lehiatu da infantil mailako Euskadiko taldearekin. Hainbat erkidegotako selekzioak lehiatu ziren Juan Jose Arribasen omenez antolatzen duten txapelketa prestigiotsuaren 29. edizioan, Cangas de Narcea herrian. Euskadiko selekzioak seigarren postua eskuratu zuen.

Urbizikoek 60 urpekaritza bataio egin dituzte Mintxetan



E lgoibarko Urbizi Urpekaritza taldekoek urpekaritza bataioak egin zituzten aurreko asteko bi egunetan Mintxetako igeilekuan. Urpean arnastearen sentsazioa sentitzeko

eta bizitzeko aukera eskaintzea da bataioen helburua, eta debalde eman zituzten. 60 lagunek hartu zuten parte eta Urbizikoak oso pozik daude ekimenak izan zuen erantzunarekin.



Maiora hirugarren Aran bailarako ultratrail lasterketan

HOKA Val d'Aran by UTMB mendi lasterketa jokatu zuten Pirinioen bihotzean, uztailaren 3tik 7ra bitartean. Mont Blancoko ultratrailleko zirkuitu barruan jokatzaren diren proben artean Europako txapelketa ere bazen Aran bailaran jokaturakoa eta lehen hamar sailkatuek zirkuituko munduko txapelketan, Mont Blancoko ultratraillean, lehiatzeko txartela ere eskuratu zuten. Vibram taldeko Maite Maiorak, 110 kilometro (6400 metroko desnibel positiboa) ibilbidea zuten Camins d'Hèr (CDH) proban hartu zuen parte eta hirugarren postuan sailkatu zen emakumezkoetan. Allison Baca estatubatuarra irabazi zuen eta Silvia Puigarnau kataluniarrak egin zuen bigarren.

Une erabakigarrian da Mendaroko frontenis txapelketa

Argitu da Mendaron zer bi bikotek jokatu duten emakumezkoen frontenis txapelketako finala. Ane Landa-Miren Gisasola eta Irati Mendikute-Josune Manteca bikoteek jokatu dute frontenis txapelketako emakumezkoen finala. Gizonen txapelketa final-erdietara iritsita dago, eta uztailaren 18an jokatu dituzte 18:00etatik aurrera (Axular Agirregabiria eta Ander Aberasturi Vs Julen Perez Cortes eta Gorka Melgosa / Unax Salegi eta Ander Garate Vs Manex Prieto eta Gorka Arrizabalaga. Bi finalak uztailaren 20an jokatu dituzte, santanetako Gazteen Egunean, 10:00etan hasita Goñati pilotalekuan. Sari banaketa ekitaldia Gaztetxean izango da.



Unai Beristainek irabazi du Crosscountry moto lasterketa, bigarren urtez jarraian

Idotorbeko jaietan bertan behera laga behar izan zuten Crosscountry moto lasterketa jokatu zuten uztailaren 6an Idotorben. 71 moto gidari lehiatu ziren Urnabitza motoklubekoek prestatutako 15 kilometroko ibilbidean; eta, iaz moduan, Unai Beristain (Azpeitia, 1996) moldatu zen ondoen lokatzez betetako ibilbidean. Beristainek bederatzi itzuli eman zizkion zirkuituari, 2:11:44.086ko denboran (61,487 kilometro orduko batez besteko abiadura). Itzulirik azkarrena 13:31.045ean egin zuen. Xabier Gallardonek ere bederatzi itzuli eman zituen, baina irabazleak baino hiru minutu eta 17 segundo gehiago behar izan zituen. Paul Bravo sailkatu zen hirugarren postuan, zortzi itzulirekin. Emakumezkoetan parte-hartzaile bakarra izan zen, June Lopez Luengo. Sei itzuli osatu zituen (02:06:44.635). Junior mailan Eneko Izagirre Arrizabalaga izan zen azkarrena, 2:05:53.771ko denboran zortzi itzuli osatuz. Beteranoen artean Gaizka Fullaondo Alonso izan zen onena. Bederatzi probek osatzen dute aurtengo Euskadiko eta Nafarroako Cross Country Motor Txapelketa, eta zazpigarrena izan da Elgoibarkoa. 🏍️ Mikel Askasibar



Elgoibarko kirol arropak Ugandako umeenganaino ere ailegatu dira



Aurrez Senegalgo Dionewar herrira iritsi ziren moduan, Ugandaino ere ailegatu dira C.D. Elgoibarren kirol jantziak. Senegalera Bergarako Ndank Ndank elkarteko kideen bitartez bidali zituzten kirol arropak, maiatzean;

eta, Ugandara, berriz, *Build a future* izeneko elkartearen bidez. Ugandako umeek pozik jaso dituzte arropak eta estreinatu dituzte dagoeneko, C.D. Elgoibarrek zabaldu dituen irudietan ikus daitekeen moduan.

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzia daukat.
643 505 827

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzia handia daukat.
614 114 360

Adinekoak zaintzeko prest
nago, orduka. Erizaina naiz eta
titulu soziosanitarioa daukat.
Esperientzia. **643 505 662**

Lanerako prest nago: garbiketa
lanetarako, sukalde laguntzaile
izateko, zaintza lanetarako...
Titulu soziosanitarioa eta
esperientzia ditut. **641 498 007**

Adinekoak zein umeak zaintzeko
prest nago, goizez, orduka. Titulu
soziosanitarioa daukat. Garbiketa
lanak ere egiten ditut.
642 986 129

Pertsona arduratsua, lanerako
prest. Garbiketa lanak egingo
nituzte, etxeetan, bulegoetan
nahiz lantegietan. Esperientzia
handia daukat. **632 708 954**

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Arduratsua naiz eta esperientzia
handia daukat. Etxeko langile
moduan edo orduka lan egiteko
prest nago. **674 810 717**

BESTELAKOAK

2024-2025 Ikasturtean Arrasateko
Unibertsitatera goizez joan behar
direnen artean Elgoibartik autobus
edo taxi zerbitzua antolatzea
nahiko genuke. Interesatuak idatzi
mezua Whatsapez.
669 339 529

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).
Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Senar-emazteak gara, eta nire senarrak lur-sail bat jaso du amarengandik dohaintzan. Lur horretan obra egin nahi dugu etorkizunean. Nire galdera honako hau da: lursaila senarrarena izan arren, obra berri hori irabazpidezko ondasun izendatu dezakegu, edo lur-sail hori dohaintzan eman duenak egin behar du hori? Nola egin genezake nik, bikotekideak alegia, obra berri hori egiteko kapitala jarri duela jasota gelditu dadin?

Lur-sail hori dohaintzan jaso duena lur-sailaren beraren jabea ez ezik lur horretan eraikiko denaren jabea ere bada, bikotekideari obra hori egiteko jarri duen dirua itzultzeko betebeharretik libre gelditu gabe (adibidez, kreditua eskatzen bada irabazpidezko ondasuen kontrakoa eskatuko da). Obra hori irabazpidezkoa izateko, obra berria lur-sailarekin batera izendatu beharko da bikotearena, edo bestela, lur-saila bera jarri lehenengo bikotearen izenean eta gero egin obra berria.

AHOLKUA: Etxaldea bikotearen izenean jartzeko bi modu daude: salerosketa edo dohaintza. Galdetu iezaiozu notarioari zeintzuk diren bien arteko aldeak eta bakoitzak zer gastu suposatzen dituen, ezer egin aurretik.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak **uztailaren 24ko eguerdia** (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak,
Mikel, potxolo,
uztailaren 20an
5 urtetxo egingo
dituzulako.
Patxo handi
bat familiakoen
partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

IRAILEAN ere **GOZATU ATXUTXIREKIN!**

Irailaren 2tik 5era

IRAILEKO TXOKOAK (09:00-13:00)

64 € / 58 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek)

GOIZ TXOKO ETA IRAILEKO TXOKOAK (08:00-13:00)

75 € / 68 € (Elgoibarko Izarrako bazkideek)

Izena emateko epea: Uztailaren 21a

OHARRA: Taldeak osatzeko gutxienez zortzi haurrek eman beharko dute izena.



Informazio gehiago: Naiara Martin

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea - Aita Agirre kulturgunea, 3, 3 ezk.



 943 741 746



atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus

12 BARIKUA

16:00 Odol ateratzeak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

22:00 Ultratrail lasterketari ongietorria. Azkaraten.

18 EGUENA

20:00 Jazz kontzertua: Move taldea, Mendaroko San Agustin kulturgunean.

24 EGUAZTENA

22:00 Nazioarteko Folklore Jaialdia. Haritz dantza taldeak antolatuta, Maalako parkean.

25 EGUENA

10:00 Bisita gidatua: Dolmenen ibilbidea. Gaztelaniaz. Erreserba egiteko: 657 79 46 77 edo info@begi-bistan.com

11:00 Sargoateko erromeria. Sargoaten.

SAN ROKE JAIK

UZTAILAK 26, BARIKUA

17:00 Kanpai jotzea eta suziariak.

Segidan, txokolate jana.

18:00 Umeen jolasak.

21:00 DJ Arno.

Ondoren, bolo jaurtiketa.

Uztailak 27, zapatua

17:00 Kanpai jotzea eta suziariak.

17:00 Umeentzako puzgarriak.

21:00 Afaria.

22:00 DJ Lila.

00:00 Bolo txapelketa.



GARAGARDO AZOKA SOLIDARIOA, MENDARON

UZTAILAK 12, BARIKUA

10:30-13:30 Umeentzako gozogintza tailerra, Galletiak-en eskutik.

13:00-18:00 Enpresentzat bazkaria, jolas, opari eta sorpresekin.

18:00 DJ Esther, Uztargi tabernan.

20:30-22:30 Afariak, frontoian.

00:00 Remember Oraiko, Uztargi tabernan.

UZTAILAK 13, ZAPATUA

11:00-13:00 Dislexiari buruzko mahai informatiboa.

11:00-13:00 Mahai jolasak, frontoian.

14:00-18:00 Bazkariak.

20:00-22:30 Afari solidarioa eta itxiera, frontoian. Opariak izango dira.



Aire libreko zinea
(Kalegoen plazan, 22:30ean)



'Los Mitchell contra las máquinas'
12 barikua

'Jurassic world: Dominion'
13 zapatua

'Fast & fourius'
19 barikua

'Mavka: basoaren zaindaria'
20 zapatua

'Barbie'
26 barikua

'Elemental'
27 zapatua



2024ko botika ordutegiak:
09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

UZTAILA

12 BARIKUA	Garitaonandia
13 ZAPATUA	Yudego
14 DOMEKA	Yudego
15 ASTELEHENA	■ Oruesagasti
16 MARTITZENA	Barrenetxea
17 EGUAZTENA	■ Soto
18 EGUENA	Garitaonandia
19 BARIKUA	Arriola
20 ZAPATUA	■ Fernandez
	Garitaonandia
21 DOMEKA	■ Fernandez
22 ASTELEHENA	Yudego
23 MARTITZENA	■ Oruesagasti
24 EGUAZTENA	Barrenetxea
25 EGUENA	■ Fernandez
26 BARIKUA	Garitaonandia
27 ZAPATUA	Arriola
28 DOMEKA	Arriola
29 ASTELEHENA	■ Fernandez

2024 urte guztian, gauez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		

Merkealdia!

LAGUNAK

colchonería textil hogar

OHE-IZARETAN ESKAINTZA ZABALA

%50 poliesterra eta %50 kotoia duten ohe-izarak 18€tik aurrera
(neurri guztiak: 80 zm-tik 2 m-ra)

%100 Kotoia duten ohe-izarak 25 €tik aurrera

Ez galdu aukera paregabe hau! Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Larre motzean

Anjel Ugarteburu



Bizi, jaiotako guztiok bizi gara (bizirik bagaude), bakoitza bere lekuan eta garaian. Esango didazue Palestinan zein Saharan jaiotako ume errukarriek, jada gazte eta heldu ere badirenek, zer aukera izan duten bizimodu normal duin bat proiektatzeko. Geure ingurutik irten gabe ere, handiak dira ezberdintasunak hemen jaiotako gurasoen seme-alabentzat eta ihesean zein lan bila etorri berri diren gurasoen familientzat. Aldapa eta trabak gaindituz trebatu direnek bizitzan aurrera egiteko gaitasunak landu dituzte. Beharra edo premia bezalako maisurik ez dago. Hori dute alde, eta ez da gutxi.

Noiz eta non jaio garen horrek, zorionarekin zein zoritxarrarekin lotu gaitzake eta, egia esan, lotzen du gizakia kasu askotan. Hala ere, garai eta inguru zailetan jaio eta bizi direnek larre motzetan ohitu direnen kemena eta indarra izaten dute, iraupen luzeko arnasa, iraun badute (?). Ahaleginez, zailtasun asko gaindituz, kemena eta adimena zorrozituz, lortzen du erraztasunik izan ez duten askok arrakasta; larre motzean, belar izpi txikienak ere probestuz.

Belaunaldien artean ere alde handiak daude. XX. mendearen erdi aldera jaio ginenok bizi izan genuen haurtzaro eta gaztearoak ez dauka zerikusirik XXI. mendean jaio direnen bizipen eta ohiturekin. Gure gazte denboran ere entzuten genien gurasoei: “Zuek ez dakizue zer den gosea eta gauza askoren gabezia” “Larre jorietan bazkatzen duzue” “Gu larre motzean ohituak gara eta jakingo genuke eskasian bizitzen ere”. Eta egia da.

Gero, konformidade kontua ere bada. Gutxi, nahikoa da batzuentzat eta beste batzuentzat asko ere ez da nahikoa, hondorik gabeko zakua ez baita inoiz betetzen. Gure denboran prakak, alkondara, abarka, zapatak ere ia oinordekotzan hartzen ziren edo, behintzat, anaia-arreba gazteek nagusiagoenak jasotzen genituen, konpostura eta adabakiak

barne. Ez horrelakorik aipatu orain Jainkoarren! Denak behar du berria eta markakoa: zapatilak, txandala, mobila... larre guria. Janarian ere antzera asko; mizkin hutsak... hau ez dut gustuko, zopa horrek kolore txarra dauka... Gurasoek ez dute nahi izaten euren seme-alabei ezer faltatzerik, umetan pairatu izan duten gabeziarik gabe hazi nahi dituzte. Premia zein gutizia guztiak “amama” asetzen badizkiezu, kamuts, hortzik gabeko izaki bihurtuko dituzu, lehia nagusi den gizartean. Ondo dago edozer eta edozelan ez onartzea, baina larre gurian dabilenaren oihartzunak entzuten dira askotan.

Erosotasunaren gutizia ez du mugarik baina naturak bai. Naturaren baliabideak neurritz ustiatzen ikasi beharko dugu eta larre motzean bizitzen ikasi. Kontua ez da dena gobernuaren ardurapean lagatzea; bakoitzak jakin behar dugu daukaguna preziatzen eta neurri egokian erabili eta kontsumitzen. Izan ere errazegi botatzen ditugu, moda aitzakian, erabilgarri diren jantzi eta abar. Merkatuaren propagandaren atzamarretan katiatzen gara eta haren jokoan jausi, naturako baliabideak neurritz gain ustiatuz. Larre motzean luzaroago eta hobeto biziko gara, bai geu eta bai gure ondorengoak, naturaren oreka zainduz eta, bide batez, gure adimena eta kemena landuz. Larre motzak baditu bere abantailak.






Luis Maria Zubiaurre Ansola

2024ko uztailaren 6an hil zen, 66 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.



I. URTEURRENA

Antonio Azpilicueta Albeniz

2023ko uztailaren 11n hil zen,
87 urte zituela.

***Urte asko igaro daitezke, eta gure malkoak lehor daitezke,
baina ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Gure memoria ezaba dezakete, eta zure historia lapurtu,
baina ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Nola ahaztu zure irribarrea, nola ahaztu zure begirada,
nola ahaztu hegan egiten zenuela,
eta nola ahaztu oraindik ere maite zaitugula, nahiz eta etxetik urrun egon.***

Etxekoak



VIII. URTEURRENA

Ricardo Garate Zubiaurre

2016ko uztailaren 18an hil zen, 57 urte zituela.

***Izan zinen maitagarria,
izan zara maitatua,
utzi gintuzun,
ez zara izango ahaztua.***

Etxekoak



Eskertzak eta urteurrenak

Barren astekarlan eta barren.eus webgunean.



943 743 704 / 943 744 112



688 769 657



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk



MAALAKO parkean



HARITZ E.D.T.

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXXVII. FOLKLORE JAIALDIA

"NAZ" KONPAINIA FOLKLORIKO NAZIONALA - KAZAKHSTAN
BACNARE - RECIFEKO KULTURA BELTZAREN BALLETA - BRASIL

HARITZ EDT (*Euskal Herria*)

2024ko uztailaren 24an, asteazkena

22:00etan, MAALAKO parkean



Gipuzkoako
Foru Aldundia

